

## KONPROMISO ESKUTITZA

Ingurumenaren arloko iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiak Aktibatu + ekimena jarri du abian, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin, Eroski taldearekin, Energiaren Euskal Erakundearekin, Garbiker Sozietate Publikoarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Metro Bilbaorekin elkarlanean.

Nazio Batuek sustatutako Global Action Plan - Ekintza Plan Globala (GAP) nazioarteko programaren barnean kokatzen den ekimena da. Programa horrek pertsonen ohiturak aldatzeko ideia errazak eta ekintza praktikoak proposatzen ditu, ikuspegi positibo batetik beti. Helburua baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea eta planetan duten eragin kaltegarria apaltzea da, etxeko eta tokiko ekonomia sustatzearekin batera.

Aktibatu + programak familiek etxean eta ikasleek ikastetxean aktiboki parte hartzea sustatu nahi du. Behin programa osatuta, gai hauei ekingo zaie: erosketa-hondakinak, ura, energia eta mugikortasuna. Aktibatu + programa bi programa ezartzean zehazten da: Ikastetxe eta etxebizitzetan.

[2012-2013ko lehen edizioa](#), Amorebieta-Etxano, Durangaldea eta Debarrena zonaldeetan garatu da eta 2013-2014ko kurtsuan Arratia eta Nerbioi- Ibaizabal zonaldeetan isladatu da. 2014-2015 edizioan Busturialdea-Urdaibai, Lea-Artibai eta Uribe kosta eskualdeetan garatzen ari da. Hurrengo edizioetan, programa Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualde guztietara hedatuz joango da.

Email honen bitartez [Iraunkortasunerako konpromiso eskutitza](#). Aktibatu + [adierazpena](#) helarazten dizuegu. Eskutitz hau urtarrilaren 22an Madariaga dorretxean egindako ekimenean aurkeztu zen eta bertako zenbait erakunde sinatu zuten.

Idea proiektuan inplikaturako erakunde desberdinek iraunkortasuna lortzea helburu duen dokumentu honi oneritzia ematea da. Hilaren 27rarte erakunde desberdinetako arduradunen sinadurak jasoko ditugu: alkateak, mankomunitateetako lehendakariak eta erakunde desberdinetako ordezkariak.

Sinadura guzti hauekin dokumentu bakar bat osatuko dugu [www.bizkaia21.net](http://www.bizkaia21.net) atarian argitaratuko dena hartutako konpromisoaren adierazgarri.

Eskerrik asko